

Emakumeak zientzian: gero eta gutxiago, ibilbidean aurrera egin ahala

Emakume ikertzaileak 2016 izeneko txostena argitaratu berri du CSIC erakundeak (Zientzia Ikerketarako Goi Kontseilua, Espainia), eta datuek agerian utzi dute egoera ez dela aldatu: ibilbide zientifikoan aurrera egin ahala, emakumeen ehunekoa txikitu egiten da. Gauza bera gertatzen da Europako beste he-

rialdeetan ere, azken urteetan unibertsitate- eta doktore-titulua duten emakumeen ehunekoa hazi egin den arren (orain % 60 eta % 45 dira, hurrenez hurren).

Adibidez, jauzi nabarmena dago doktoretza-aurretik formatzen ari direnen eta doktoretza-ondorengoa egiten ari diren ikertzaileen artean: aurretik % 56,69 dira, eta ondoren, % 32. Bestalde, Espainiako ikerketa-proiektuetan, Ikertzaile Nagusi izendapena duten emakumezkoen ehunekoa % 35,98 da, eta nazioarteko proiektuetan, % 34,67.

Bereizketa, ordea, ez da bakarrik bertikala; horizontala ere bada. Hain zuzen ere, Elikagaien Zientzian eta teknologian, emakume ikertzaileen ehunekoa gizonena baino handiagoa da (% 53,37). Haren ondotik datoz Zientzia eta Teknologia Kimikoak (% 43,95) eta Nekazaritza Zientziak (% 41,44). Beste muturrean dago Fisika, % 20,62arekin.

Txosten osoa eskuragarri dago CSICen webgunean, [Emakumeak eta Zientzia atalean](#).



Bartzelonako Mikroelektronika Institutuko ikertzaile bat, laborategian lanean. ARG. CSIC.


Hondakin nuklearrak birziklatzean sortutako gas erradioaktiboak harrapatzen ditu material berri batek

Zentral nuklearretako hondakinak prozesatzean askatzen diren gas erradioaktiboak modu eraginkorrean, seguruan eta merkean harrapatzeko material bat garatu dute. Lausanako Eskola politeknikoko eta Kaliforniako Unibertsitateko ikertzaileek elkarlanean egindako proiektua da, eta [Nature Communications](#) aldizkarian eman dute lorpenaren berri.

Aurrerapauso garrantzitsutzat jo dute, erregai nuklearra birziklatzean askatutako gasak harrapatzeko orain arte erabiltzen zen teknologia oso tenperatura baxuak behar baitzituen, eta, beraz,

oso da garestia. Gainera, leherketak eragiteko arriskua ere bazuen. Aldiz, orain garatu duten materialari esker, prozesua asko merkatu da, eta segurua eta eraginkorra da.

Material hori lortzeko, 125.000 egitura probatu dituzte, eredu informatikoak erabilia. Ez zuten erronka makala, askatzen diren gasak bereizteko gai izan behar baitzuen. Hain zuzen, gas horien arteko garrantzitsu eta arriskutsuen artean, xenona eta kriptona daude, eta bereizita bildu behar ziren, xenonak erabilerakomertziala duelako.



SBMOF-1 izeneko materialaren egitura. Gas erradioaktiboak egituraren poroetan harrapatuta geratzen dira, bata bestetik bereizita. ARG.. BEREND SMIT/EPFL/KALIFORNIako UNIBERTSITATEA.

Bestalde, xenonak kriptonak baino askoz ere erdibizitza laburragoa du (hilabete, urte baten aldean).

Azkenean, lortu dute bilatzen zuten materiala. SBMOF-1 deitu diote, eta beste poluitzaile batzuk (karbono dioxidoa, adibidez) xurgatzeko erabiltzen diren materialen antzekoa da. MOFak material porotsuak

dira, eta poroen artean harrapatzen dituzte gasak. Bada, SBMOF-1aren egitura aproposa da xenona eta kriptona bereizita harrapatzeko, giro-tenperaturan. Ikertzaileen esanean, horren bidez, zentral nuklearretako uranioa eta plutonioa berriro erabiltzeko prozesua merkatzea eta segurua bihurtzea lortu dute.